

AITA MANUEL LARRAMENDI-RI.

¡O Aita Manuel Larramendi, Andoaingo seme argi eta gure probinziaren onra eta gloria!. ¡Zenbat zor dizun Euskal-erriak berari agertu ziñion amorio bizi eta egiñ ziñiozkan mesede aundiakgatik; batez ere gure Itzkuntza miragarriaren jatorri garbi eta noblea ikusierazotzeko eta gala guziz egokiakiñ argitaratu ziñituen *Gramatika* eta *Itztegi*-gatik. ¡A! gure Euskera maite eder au isekatua, baztertua, despreziatua, eta euskeraz itz-egitea gauza lotsagarri eta desonratzat, eta beragatik iltzat bezela jakintsu usteko arroak zeukaten denboran, zuk pistu erazi zenduen moduren batean bizitza berria emanaz, eta agertuaz zala, ez España menderatu zuten jende arrotzen itzkuntzetako itzakin arabatu eta antolatutako itzkera char eta guraso jakiñik ez duen ume borta bezelakoa; ezpada Europan ezagutu izan diran giza-arraza guziaz lendikakoa, Babelko dorretik mundu guzira sakabanatu ziran echadi edo familiaritatik Españara etorri ziranak ekarri zutena berbera. Zu izan ziñan besterik iñor baño lenago onen balioa ongi ezaguturik, garbi, chukun eta graziarekin itz egiteko zuzen bide chit egokiak zure gramatikan utzi ziñituena, emen eta itztegian emanaz ondorengo eskuera zale guziaz, itzkuntza paregabeko au beti bizirik gordetzeko, eta gala eta apaiñduriakin jantzi eta okitzeko bear dan guzia, baita ere beste itzkuntza ezagutu guzien artean onenari eta sonatuenari ekartzen zaizkan errespeto eta begiramentuak merezi dituelazko probabiderik argiena. ¡O zer lan makur, illun eta naspillatua artu zenduen zeregañ! ¡Zenbat neke, zenbat buru auste artu, eta zenbat gau deskansu gabe igaro erazo ziñion zere gorputzari, lan osotoro berri eta paregabeko oni buru emateko! Eta au guzia ez bestegatik, ezpada zure erritar euskaldunen onagatik, zuzenduaz guzia Jaungoikoaren onra eta gloria geiagorako. Uste genezake, bai, dudaren izpirik gabe, lan nekoso oek ongi sariztatuak izan dituzula, Zeruan gozaten zauden gloriarekin. Ala opa dizute zu mundura ziñaneko bigarren eunkidaren oroipen onragarria egiten duten euskaldun guziak, eta oen artean zure itzkribuak gero eta geiago estimatzen dituen

MANUEL ANTONIO ANTIA-K.

Urnietan, 1890-ko Abenduan.